

EITB euskalduna, zuzendaritzatik hasita!

Idatzi honen bidez, EITBko ELA, LAB eta ESK sindikatuok, Aldatu Gidoia ekimenak eta manifestuaren sinatzaileok geure kezka agertu nahi dugu, **EITBko zuzendaritza-postuak hautatzeko prozesuetan ez direlako euskararen ezagutzaren eskakizuna betetzen ari.**

EITBko Zuzendaritzak euskarazko **C1 maila izatea ipini du baldintza gisa** azken urteetan zuzendari berriak hautatzeko deialdietan. Haatik, 2024an orain arteko bidean atzera egin eta hiru ardura postu esleitu dira euskara eskakizuna betetzen ez duten hiru pertsonari: EITB Mediako Zuzendaritza, EITBko Social Mediaren eta eitb.eus-en Zuzendaritza, eta Zuzendaritza Komertziala. Areago, **atera berri diren deialdietan jada ez da C1 maila eskatzen.** Baldintza bakarra da «gaztelania, euskara eta ingelesa jakitea», zehaztaperen gehiago egin barik. Hori da, esate baterako, Primeran plataformako eduki arduraduna izango denari eskatzen zaiona. Horiek atera dira azalera azkenaldian baina lehendik ere gabezia larriak daude hainbat arduradun eta zuzendarien euskara mailan. Gaztelanieraz onartuko al genuke Zuzendari Nagusiak agerraldi publikoetan euskaraz erakutsi duen maila?

Bestalde, horrek guztiak zapuztu egiten du guztiz 2013tik EITBn indarrean dagoen, eta zuzendaritza parte duen, euskara plana. Eta halaber planaren helburuak ere erasotzen ditu, alegia, euskararen erabilera sustatzea eta gizartearen aurrean proaktiboki jokatzeko euskararen sustapenean.

Egoera honi **salagarria** eta **larria** deritzogu. Komunikabide publikoa den aldetik EITBk sorreratik dauka gizartearen aurrean euskara sustatzeko betekizuna eta erantzukizuna. Helburu hori zenbateraino betetzen ari den hausnartu beharko dugu euskalgintzak, gizarte eragileok eta EITBren gainean ardura duten erakundeek. Eta tresna eraginkorra izateko neurriak hartu beharko dira. Bitartean, gutxieneko aldarrikapena da zuzendari eta arduradun guztiek euskara menperatzea. Izan ere, erabaki hauekin, **EITBk euskara eta euskaldunak gutxietsi** eta baztertu egiten gaituenaren irudia zabaltzen da gizartearen aurrean.

Horiek guztiak aintzat, gehitu nahi genuke **ezin dela profesionaltasunez jardun EITBn euskara menperatu gabe**, aipatutakoez gain, euskal kulturaren eta sorkuntzaren ezagutzarako traba handia eta ulergaitza baita.

Horiek horrela, azpian sinatzen dugun eragile eta norbanakoek, **EITBko Zuzendaritzari galdatzen diogu** zuzen ditzala euskararen eskakizuna kolokan utzi den postu guztietako prozesuak, EITBko lanpostu guztietan bezala, zuzendaritza-postuetan ere **dagokion euskara-betekizuna ezarri eta betearaziz.**

Era berean, **otsailaren 25ean EITBren Bilboko egoitzaren aurrean elkarretaratzera dei** egiten diegu eragile eta norbanako euskaltzaleei bezala, oinarritzko hizkuntz eskubideak bermatzearen alde dagoen orori.

Euskal Herrian, 2025eko Otsailaren 14an

EITBko ELA, LAB eta ESK sindikatuak eta Aldatu Gidoia ekimena